P.-T. Ducourrau naturalistaren kaierak

Biarritzeko XIX. mendeko aberediaren iruditegia

Kuku europearra

Hegazti igotzaileak

Ezaugarri fitxa

P.Th. Ducourrauren terminologia

Izen zientifikoa: **Cuculus canorus**
Frantsesezko izena: **Coucou**
Sailkapena: **Hegaztia – 3. ordena – Hegazti igotzaileak**
Beste izenak:

Gaurko terminologia

Izen zientifikoa: **Cuculus canorus**
Frantsesezko izena: **Coucou gris**
Euskarazko izena: **Kuku europarra, Kuku arrunta, Kukua**

Izena / Sailkapena

A eta B Cuculus Canorus, L coucou
2. ordena, Scansore igotzaileak, 2. dibisioa
Cuculidae, 17. zkia. Leunis taula orokorra 76. orria
Risso
Darracq

Eskuizkribuaren transkripzioa

Xehetasunak

A – kukuaren sabela
B – Kukua saihetsez
4. zkia. Neurri naturala, ezkerreko hanka, 4 erhi hori, AB eskua, B lumak, BC besaurrea estalia, CD beso estalia
Lumek eskumuturra arte estaltzen dute besoa.
5. zkia. eskuineko hanka – lumak
3 erhi aintzinera eta 1 gibelera – lumarik gabeko erhiak eta bata bestearengandik bereiztuak.
3. zkia. Burua saihetsetik ikusia, moko osoki irekia – sudurra – mihia
Mokoa pixka bat makurtua, gaineko partean ganbila eta bazterrean zapaldua

Deskribapena

Hegazti migratzaile hauek martxoaren 2. hamabostaldian itzultzen dira gurera.

Oharrak

Neurri naturaleko marrazkia
Biarritzen marraztuak 1872ko apirilaren 5an, Arnaud Sarrebeyrous-ek oihanean hil zuen hegazti baten arabera.